



Soziolinguistika Klusterra

2016. URTEKO MEMORIA

**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**



**Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain
T. 943 592 556 / 629 350 095**

**Luzarra Kalea, 10
48014 Bilbo**

✉ **kluster@soziolinguistika.eus**

📍 **www.soziolinguistika.eus**

📺 **slklusterra**

🐦 **@slklusterra**

Soziolinguistika Klusterra

2016. URTEKO MEMORIA

OHOREZKO BAZKIDEA:



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

ERAKUNDE BAZKIDEAK:

 AEK Euskaraz Kooperatiba Elkarteak (AEK)	 elhuyar ELHUYAR Aholkularitza	 MONDRAGON UNIBERTSITATEA Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea (HUHEZI)
 artez Euskara Zerbitzuak ARTEZ Euskara Zerbitzu	 emun EUSKARRIA ETA BEHARMENTZAKO ELKARLANA EMUN Kooperatiba	 NETLE Nafarroako Euskara Teknikarien Lanbide Elkarteak (NETeLE)
 [a] a z t i k e r AZTIKER Ikerkuntza	 E! Erandioko Udala Erandioko Udala	 TOLOSA Tolosako Udala
 bai euskarari BAI Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak	 EUSKO IKASKUNTZA Eusko Ikaskuntza	 topagunea Euskararen Federazioa Topagunea. Euskara Elkarleen Federazioa
 BERMEOKO UDALA Bermeoko Udala	 ERRENTERIAKO UDALA Errenterriako Udala	 UEMA UEMA
 donostia Euskararen Donostia Donostiako Udala	 Hernaniko Udala Hernaniko Udala	 upna Unibertsitate Publikoaren Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea
 ebete Ebate Hizkuntza Zerbitzuak	 ikastolen elkarteak Euskal Herriko Ikastolak	 Urtxintxa KALITATEZKO HERRITARRAK Gipuzkoako Urtxintxa Eskola
 UPV EHU Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila	 kutxa FUNDAZIOA Gipuzkoa Donostia Kutxa	 ZUMAIKO UDALA Zumaiaiko Udala
 UPV EHU Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak	 LABORAL kutxa Laboral Kutxa	
 UPV EHU Soziologia II Saila	 Mank s a k a n a Sakanako Mankomunitatea	

NORBANAKO BAZKIDEAK: 74

Sarrera.....	06
Lan arloak.....	07

PROIEKTUAK

Ikerketa, garapena eta berrikuntza.....	08
1. Aldahitz	09
2. Arrue.....	10
3. BERBEKIN programa: ahozko hizkuntzaren sustapena ikasgelan.....	11
4. Bilakaera soziolinguistikoa.....	12
5. D ereduko kirola.....	13
6. Donostiak XVIII. mendean hartzen zituen eremuen gaur egungo egoera soziolinguistikoa azterketa.....	14
7. Euskal Herriko VII. kale neurketa.....	14
8. Euskararen Adierazle Sistema (EAS).....	15
9. Hitanoa sustatzeko proiektua: Azpeitia eta Zumaia.....	15
10. Hitzargiak.....	16
11. Liderrak eredu.....	17
12. Hizkuntzen ahozko kale erabilera: herrietako neurketak.....	18
13. Jendaurrean Erabili.....	19
14. San Mames: Kirol instalakuntza handietako neurketa.....	20
15. Soralezko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana.....	20
16. Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa.....	21
Ezagutzaren kudeaketa.....	22
1. VIII. Soziolinguistika Jardunaldia.....	23
2. Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sarien IX. edizioa.....	24
3. "Hizkuntzen mundua eta euskara deskubrituz" material didaktikoa.....	25
4. Soziolinguistika albistaria.....	25
5. Azpimarra saioa.....	26
6. BAT aldizkaria.....	26
7. Internet: webgunea eta sare sozialak.....	28
8. Formazioak eta tailerrak.....	28
· IRALE programa.....	28
· BERBEKIN programa.....	29
· Praktika gogoetatsuaren gaineko formazioa Nafarroan.....	29
· EHUko Uda Ikastaroetan tailerra.....	30
9. Kongresuak eta hitzaldiak.....	31
· Bazkideentzako hitzaldia	31
· Lurraldea eta Hizkuntza (LUHI) graduondokoa UEUn	31
10. Artikuluak.....	31
11. Nazioarteko harremanak.....	32
12. Hausnarketa estrategikoa.....	33

Sarrera

Aurtengoa aldaketaz beteriko urtea izan da. 2016an Soziolinguistika Klusterreko plan estrategiko berria landu eta definitu da, eta 2020 arte indarrean egongo den ziklo estrategikoari hasiera eman zaio. Definizio estrategiko honek ez du, ordea, aurrekoarekin bat bateko etenik ekarri, horren ordez, aurreko zikloaren jarraipen gisa planteatu da, betiere arlo batzuk indartzeko konpromisoa hartzeko balio izan duelarik. Horien artean daude kudeaketa gaitasunak eta antolamendua berritzearen gainekoak, bai eta interes taldeekin hasitako elkarlana indartzekoak ere. Azken horietan, bazkide, erakunde publiko, unibertsitate eta bestelako aliatuekin elkarlanean egindako proiektuetan jarri da arreta.

Aurten hamabost proiektu landu dira Soziolinguistika Klusterraren baitan eta hainbat ekimen bideratu


dira proiektu horietatik sortutako ezagutza guztia kudeatu eta gizarteratua izan zedin. Landu diren proiektu guztien artean gogora ekarri nahi ditugu zenbaitzuk. *Hitzargiak* da horietako bat. Proiektu honek nazioarteko mailan hizkuntza gutxituen arteko lankidetzat sustatu eta horien artean ezagutza partekatzeko sarea sortzeko aukera eman du. Aurten egin da, halaber, *Euskal Herriko Kale neurketa*, 129 herrietan neurketak eginez euskararen erabileraren gaineko informazioa eman duen proiektu sendoa eta erreferentea izan da. Aipagarri da, modu berean, Soziolinguistika Klusterreko *Albistaria*, garai bateko berripapera ordezkatu duen bitartekoa, eta Soziolinguistika Klusterrak duen ezagutza zabaltzeko konpromisoa berresten duena.

Inoizko lan bolumenik handiena izan du aurten Soziolinguistika Klusterrak, proiektu asko eta oso zabalak

landuz. Soziolinguistikaren alorra hedatzen ari delako zantzutzat har daiteke honakoa, gero eta esparru sozial gehiagotan hartzen baita aintzat ikuspegi soziolinguistikoa. Eta horrekin batera Soziolinguistika Klusterraren indartzen baten erakusle dela ere ulertzen dugu.

Olatz Olaso

Lehendakaria



Lan arloak

Soziolinguistika Klusterra soziolinguistikaren jakintza eremuan kokatuko dela aitortzea ez da nahikoa bere jarduna norabide egokian bideratu nahi bada, soziolinguistika eremu zabala baita bere baitan biltzen dituen eremuei dagokionez.

Zabaltasun horretan, hizkuntzak gizarte gertaera gisa ulertzeko soziolinguistikaren prismatik egin daitezkeen ekarpenez gain oso kontuan hartzekoak iruditzen zaizkigu


zientziaren beste diziplina batzuetatik egin daitezkeen ekarpenak ere.

Hala nola, gizarte-antropologiatik, gizarte-psikologiatik, pedagogiatik, filologia eta hizkuntzalaritzatik eta komunikazio zientzietatik. Ondorioz, diziplina horien ekarpenek ere zentzua dute Klusterrak garatu nahi dituen proiektuetan.

Betiere, hizkuntzak gizarte-gertaera gisa ulertu asmoz. Diziplina horiekiko zubiak eraikitzea beraz, beharrezkoa eta lagungarria izango da Klusterraren jardunean.

Bost lan-arlo hauek jorratu dira Klusterraren lehentasunezko arlotzat:

- 1. Hizkuntza-ukipeneko soziolinguistika dinamikoa.**
- 2. Hizkuntza-erabileraren alderdi soziala.**
- 3. Hizkuntza-jokaeren aldaketa-prozesuak.**
- 4. Hizkuntzen transmisio soziala.**
- 5. Hizkuntzen inguruko diskurtsoak, balioak eta jarrerak.**



PROIEKTUAK

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

1. **Aldahitz** (hizkuntza-ohitura aldaketa)
2. **Arrue** (ikasleen eskola giroko hizkuntzen erabilera)
3. **BERBEKIN** programa: ahozko hizkuntzaren sustapena ikasgelan
4. **Bilakaera soziolinguistikoa** (1981-2011)
5. **D** ereduko kirola
6. **Donostiak XVIII. mendean** barnean hartzen zituen eremuetan gaur egungo egoera soziolinguistikoaren azterketa
7. **Euskal Herriko VII. kale** neurketa
8. **Euskararen Adierazle Sistema (EAS)**
9. **Hitanoa** sustatzeko proiektua: Azpeitia eta Zumaia
10. **Hitzargiak**
11. **Liderrak** eredu
12. **Hizkuntzen ahozko kale** erabilera: herrietako neurketak
13. **Jendaurrean Erabili**
14. **San Mames: Kirol instalakuntza** handietako neurketa
15. **Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen** hizkuntza ohituren azterlana
16. **Tokian tokiko** hizkuntza aktibazioa

01

Zuzendaria:

Pello Jauregi (UPV-EHU)

Koordinatzailea:

Pablo Suberbiola

p.suberbiola@soziolinguistika.eus

Gaiari buruz diharduen artikulua:

Irureta, Onintza (2016ko urtarrila) Beti euskaraz egingo lizukeen lankidea egunero alboan bazenu zuk zer egingo zenuke?, Argia aldizkaria, 2493, 36-37. Lasarte-Oria.

Aldahitz

Aldahitz proiektuaren aztergai nagusia hizkuntza-ohituren aldaketa-prozesuak dira, eta ikerketa ekintzarekin uztartuz aritzen gara zeregin horretan. Eusle metodologia da hizkuntza-ohituren aldaketa errazteko eta ikertzeko proiektuan garatu den tresna nagusia. Aurreko hiru urteetan bezala, 2016. urtean zehar, metodologia horretan oinarrituriko esperientziak garatu dira lantokietan (6 esperientzia, guztira), eta jasotako datuen analisia egin da. Horrekin batera, proiektuaren tresneria metodologikoa zabaldu da, beste bi metodologia osagarriekin: Ulerrizketa metodologia eta Ulertzeko eskolak metodologia. Aurreko urtean diseinua landu ondoren, 2016. urte honetan egin dira bi metodologia horietan oinarritutako lehen esperientzia pilotuak (*Ulerrizketako* zazpi esperientzia eta *Ulertzeko eskolena*, bat) eta haietan jasotako informazioa aztertu da. Urtean zehar garaturiko jarduera horrekin, aurrerapen nabarmena eman da proiektu honetan hizkuntza-ohituren aldaketarako sortzen eta inplementatzen ari garen tresneria integralaren garapenean.

Garapen horren osagarri, eta hezkuntza arloko hainbat lankideren aldetik jasotako eskaera eta proposamenei erantzunez, *Eusle metodologia* hezkuntza arlora eta haur zein gazteen testuingurura egokitze lan-ildo bat zabaldu da.



Lankidetz:



Hezkuntzaren Teoria
eta Historia Saila

Babesleak:



02

Zuzendaria:

Iñaki Martínez de Luna (Soziolinguista)

Koordinatzailea:

Pablo Suberbiola

p.suberbiola@soziolinguistika.eus

Arrue

Arrue proiektuaren aztergai nagusia ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilerak dira. Ikerketa honetan, EAEko ikasleek euskara, gaztelania eta beste hizkuntzak eskolan zenbat erabiltzen dituzten aztertzen dugu, eta horrekin batera, erabilerari horiek –bereziki euskararena– zerk errazten edo zailtzen duen ikertzen da aldagaien analisi estatistikoen bidez.

2016. urteko azterketa nagusia *EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera eskola-giroan, 2011-2015* izan da. ISEIk bideratzen duen Ebaluazio Diagnostikoko proban 2011n, 2013an eta 2015ean jasotako ikasleen datuekin erabileraren bilakaera aztertu da, lehen aldiz azterketa *longitudinala* ere osatuz. Txosten teknikoak landu dira euskaraz eta gaztelaniaz. Horrekin batera, tipologia, euskararen erabileraren aldetik nabarmentzen diren ikastaldearen azterketarako analisi estatistikokoak landu dira (*aldakortasuna*). Bestalde, erabilerari buruz jasotzen ari garen datuen eta ikastetxeek euskara sustatzeko egiten dituzten planen arteko loturaren gaia ere landu da.

Informazio gehigarria:

Lotura LMH4ko Ebaluazio Diagnostikoa

2015 ISEIren txostenera, [hemen](#)

Lotura DBH2ko Ebaluazio Diagnostikoa

2015 ISEIren txostenera, [hemen](#)



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Lankidetzeta eta babeslea:



Jarraipen Batzordean kide diren erakundeak:



03

Zuzendaria:

Ines Garcia-Azkoaga (UPV-EHU)

Koordinatzailea:

Josune Zabala

j.zabala@soziolinguistika.eus

Partaideak:

Aranzadi Ikastola, Ipintza Bergarako
Institutua, Mariaren Lagundia Ikastola,
Bergarako Udala.

BERBEKIN programa: ahozko hizkuntzaren sustapena ikasgelan


Bergaran berbazko komunikazioa indartzeko programari ekin zitzaionetik (2014) iragan da hirugarren urtea. "Edozein irakasle da hizkuntza irakasle" oinarritzko pentsamendutik eskoletan ahozko komunikazioa indartu dadin ari gara ekintza-ikerketa bideratzen edozein arlotako irakasleekin elkarlanean, zehazki, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. zikloko irakasleekin.

Aurtengo urtean ekin zaio ikerketa honen bigarren itzuliari. Aurreko bi ikasturtetan egindako azterketatik atera dugu ahozko hizkuntzaren erabilera indartzen laguntzen duten "praktika onen" bilduma bat, eta bilduma horretan oinarrituta diseinatu dituzte irakasleek euren saioak eta aztertu dugu zein neurritan hobetu den ikas-arloen eta hizkuntzaren presentziaren arteko harremana.

EREDU PEDAGOGIKOA



ZERK ETA NORK LAGUNTZEN DIO
AHOZKO KOMUNIKAZIOARI?



Arloetan ere komunikatu

2017rako erabakiei begirako galderak:

1. Zein hizkuntza jarrera eta portaera bultzatzen dira eskolan?
2. Zein funtzio dute hizkuntzek eskolan?
3. Zein balio ematen zaio bakoitzari?
4. Noiz eta nola erabiltzen dira gelan eta gelatik kanpo?
5. Nola eragin genezake euskararen erabilera eskolan bertan, gelan eta gelatik kanpo?

Komunikatzen ikasi

Lankidetzak:



Euskal Hizkuntza eta
Komunikazio Saila

Babesle eta laguntzaileak:



04

Bilakaera soziolinguistikoa



Euskararen bilakaera soziolinguistiko (1981–2011) Soziolinguistika Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanean egin duten euskararen bilakaera soziolinguistikoaren gaineko hausnarketa lana da. Lan horrek helburu bikoitzari erantzun dio. Batetik, eskura dauden datu eta azterketa soziolinguistetan oinarrituta, azken 30 urteetan euskarak izan duen bilakaera nolakoa izan den agerian jartzea izan du xede (1981–2011). Eta diagnostiko horretan oinarrituta, bestetik, aurrera begirako erronkak zeintzuk diren identifikatzea bilatu da.

Proiektu horrek gaian adituak diren hiru zuzendari izan ditu. Iñaki Martínez de Luna, Xabier Erize, eta Mikel Zalbide arduratu dira euskararen bilakaeraren inguruko analisia burutzeaz, bai eta horren gaineko dokumentu bat osatzeaz ere. Jatorrizko dokumentu horren gainean, halaber, lanean aritu dira hizkuntza alorrean arituak eta adituak diren beste hainbat kide.

Laburpen txostena eskuragarri dago
 hemen:

<http://www.soziolinguistika.eus/bilakaera>

Guztien ahaleginaz osatu eta mamitu den ezagutza aberats horren emaitza izan da, batetik, 2016ko ekainean Donostian ospatu zen Jardunaldia. Bestetik, euskaraz, ingeleraz eta gaztelaniaz argitaratu den "Transmisioa eta gaitasuna, portaera linguistikoen motibo subjektiboa, eta mintzajarduna: bilakaera eta aurrera begirako erronkak" laburpen txostena.



Babeslea:



05

Zuzendaria:

Jone Miren Hernandez (UPV-EHU)

Koordinatzailea:

Pablo Suberbiola

p.suberbiola@soziolinguistika.eus

D ereduko kirola

D ereduko kirola ikerketa-ekintza motako proiektu bat da, 2016an abiatutakoa, eta bere aztergai nagusitzat du eskolatik kanpo gertatzen den haur eta gaztetxoek euskarazko sozializazioa, esparru jakin batean: aisialdiko kirol jarduerak. 2016. urtean lantaldearen eraketa osatu da lehenik eta ondoren proiektua garatzeko lehen guneen lokalizazioa, harremanak eta hautaketa egin dira. Donostiako, Getxoko, Gasteizko eta Zarauzko bost kirol taldetan abiatu da proiektua, eta horietan egin dira lehen saioak entrenatzaileekin eta baita ikerketari begirako lehen elkarrizketak eta behaketak ere. Guzti horrekin osatu da lehen diagnosis –orokorra zein gunez-gunekoa– eta finkatu dira hurrengo urratsak, bai ikerketari eta bai gune bakoitzean egingo den lanari begira.



Lankidetzak:



Balioen Filosofia eta
Gizarte Antropologia Saila

Proiektuaren Batzorde teknikoko kide diren erakundeak:



Babesleak:



06

Zuzendaria:
Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.eus

Donostiak XVIII. mendean hartzen zituen eremuen gaur egungo egoera soziolinguistikoaren azterketa

Euskaltzaindiak Donostiako aniztasun soziolinguistikoa perspektiba historikoan jartzeko ekimena jarri zuen abian. Euskararen Historia Sozialaren metodologia berritzailea Donostian aplikatu nahian, "Donostiako lehengo (1761eko) eta oraingo hizkuntza-egoeraren azterketa" izeneko ikerketa-lerroa ireki zuen eta ikerketa-lerro honen baitan kokatu behar dugu Soziolinguistika Klusterrak burututako "Donostiak XVII. mendean barnean hartzen zituen eremuetan gaur egungo egoera soziolinguistikoaren azterketa". Azterketa honen asmoa, beraz, Donostiako egungo egoera soziolinguistikoa deskribatzea izan da, egungo egoeraren argazki bat eskaintzea alegia.

07

Zuzendaria:
Olatz Altuna
o.altuna@soziolinguistika.eus

Batzorde Zientifikoa:
Paula Kasares, Iñaki Martinez de Luna,
Iñaki Iurrebaso, Eneko Gorri, Eneko
Anduaga, Xabier Isasi eta Olatz Altuna.

Euskal Herriko VII. kale neurketa

2016. urtean Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketaren VII. edizioa jarri da martxan. Bost urtean behin behatzen ditugu Euskal Herriko kaleetako elkarrizketak eta hizkuntzen ahozko kale erabileraren nolakotasuna aztertzen dugu. Hala, Soziolinguistika Klusterrak 2016an ikerketa honen landa-lana burutu du eta 130 herri behatu ditu 255 neurtzailearen bidez. Datu-bilketan zehar 172.955 elkarrizketa bildu ditugunez gero, eta egindako laginketari jarraiki, aurreko edizioetan eskuratzen genituen herrialdekako datuez gain, eskualdekako datu adierazgarriak ere izango ditugu oraingoan. 2017ko udaberrian egingo da emaitzen zabalpena.

Informazio gehigarria:
<http://www.soziolinguistika.eus/kale-erabilera>

Lurralde arduradunak:



Laguntzaileak:



08

Zuzendaria:

Iñaki Martínez de Luna

Koordinatzailea:

Olatz Altuna

o.altuna@soziolinguistika.eus

Euskararen Adierazle Sistema (EAS)

Euskararen Adierazle Sistemaren helburu nagusia euskararen egoera eta bilakaera jasotzea eta ezagutzera ematea da. Beraz, euskarak gizartearen esparru desberdinetan izan duen bilakaera zehatz-mehatz azaltzeko adierazle-egitura bat sortzea du xedetzat.

Ekimen horretan parte hartzen dute Euskal Herri osoko erakunde publikoak (Eusko Jaurlaritza, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru aldundia, Nafarroako Gobernuak Euskarabideak, eta Euskararen Erakunde Publikoak).

EAS proiektuaren garapenerako, Soziolinguistika Klusterrak bere baliabide teknikoak baliatzen ditu Eusko Jaurlaritzarekin duen hitzarmenaren bitartez. 2016ean zortzi izan dira Euskararen Adierazle Sistemaren garapenerako Soziolinguistika Klusterraren ardura teknikopean egin diren urratsak. Egiteko horiek zerrendatu ziren Euskararen Adierazle Sistema (EAS) lantzeko eta garatzeko lanak (K-16/2016) kontrataziorako SLK-k aurkeztutako proiektuan, eta aurreko urteetan egindako lanaren segida izan dira.

- 2016eko zeregin nagusietako bat adierazle nagusien iturri estatistikoekin lankidetzat protokoloak sinatzea izan da. Sinaketa prozesua euskararen lurralde-administrazioen ardura izan bada ere, Soziolinguistika Klusterrak protokoloen euskarriak sortu ditu eta Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuak Euskarabidearen eta Euskararen Erakunde Publikoaren esku utzi ditu.
- Bigarren eta hirugarren egitekoak EASen Web-aplikazioa Jaurlaritzaren baitako euskarri informatikoetara egokitzea izan da.
- Laugarren egitekoan 29 adierazleak euskararen eremu osora zabaltzeko lanketa prestatzea izan da.



- Bosgarren egitekoan EASen jardungune baten berariazko lanketa egin da. Besteak beste, Internet edo IKTei loturako adierazleen jardunguneari izendapena aldatu eta aurrera begira *ingurune digitalaz* aritzea proposatzen da. Jardungune honetan lau adierazle berri proposatu dira.
- Seigarren egitekoan EASEk eskainiko duen urtekariaren lanketa egin da
- Zazpigarren egitekoan EASen organo desberdinetan landutako dokumentazioa bildu da.

FEDER funtsaren (Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren) bitartez ko-finantzaturako proiektua



Erakunde sustatzaileak:



9

Zuzendaria:

Josune Zabala

Koordinatzaileak:

Olatz Bengoetxea

o.bengoetxea@soziolinguistika.eus

Partaideak:

Hitanoa Azpeitian: Karmelo Etxegarai
Ikastola, Iraurgi Ikastetxea, Ikasberri
Ikastola, Urola Ikastola Azpeitia-Azkoitia
BHI.

Hitanoa Zumaian:

Oikiako herri eskola, Maria eta Jose
ikastetxea, Zumaia herri eskola,
Zumaia institutua

Hitanoa sustatzeko proiektua: Azpeitia eta Zumaia

2010. urtetik 2015 urtera bitarte hitanoa sustatzeko materiala sortzen, probatzen eta hobetzen ibili zen SLK Azpeitiko eta Zumaia ikastetxe guztietako irakasleekin elkarlanean.

Hala, 2015-2016 ikasturtean martxan jarri da azken urtean aurkeztutako material berritua, bai Azpeitian, bai Zumaian, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara bitarte. Maila bakoitzean bi material eraman dira praktikara herri bakoitzeko ezaugarri eta errealitatera egokituta, eta SLK-k segimendua egin dio Azpeitiko eta Zumaia ikasle eta irakasleekin batera sortutako bideari: batetik, urtean zehar ikasleek egindako lanak bildu dira; bestetik, irakasleekin elkartu eta ekintza ezberdinen balorazioa egin da.

10

Koordinatzailea:

Belen Uranga

b.uranga@soziolinguistika.eus

Batzorde Zientifikoa:

Larraitx Ariznabarreta (HUHEZI), Durk Gorter (Mercator), Itziar Mendizabal (Unesco Katedra), Erramun Osa (Euskaltzaindia), Araceli Díaz de Lezama (Eusko Jaurilaritza), Jasone Mendizabal (Topagunea), Vicent Climent (NPLD), Xavier Vila (Bartzelonako Unibertsitatea).

Patzuergoa:

Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Donostia/San Sebastián 2016 fundazioa, UPV-EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaleen Topagunea, Hekimen, Euskaltzaidia, Artez Euskara Zerbitzua, EMUN Aholkularitza, Elhuyar Fundazioa, Ahize-AEK, NPLD, Mercator, Munduko Hizkuntzen Ondarearen UNESCO Katedra, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua.

Hitzargiak

Hitzargiak egitasmoak bi helburu nagusi izan ditu 2016an zehar. Batetik, egitasmoa elkartuko ziren Europako jardunbide egokiak identifikatu eta biltzen jarraitzea. Bestetik, proiektura elkartutako jardunbide horien arteko Topaketa bat burutzea.

Ekainean burutu da Topaketa hori. Hernaniko Orona Fundazioak bi egunez jaso ditu 25 hizkuntza gutxitu, 51 hizlari eta 110 jardunbide egoki, eta hitzaldien, mahai-inguruen eta posterren bitartez jardunbide egokien esperientziak elkar trukatzeko aukera izan dute guztiek. Sortu diren harreman horien emaitza dira argien artean eraiki dituzten zubi berriak, elkar irakatsi, aberastu eta etorkizunean elkar lanean aritzeko baliagarri izango direnak.

Europako jardunbide egokiak egitasmoa gonbidatu eta Topaketa antolatzeke ezinbesteko bitartekoa izan da Hitzargiak webgunea. Bertan, jardunbide egoki guztien idatzizko eta ikus entzunezko informazioa eskuragarri egoteaz gainera, jardunbideak beraieen artean ezagutu eta harremanak egiten hasteko bitarteko baliagarria izan da.



Lantalde teknikoa:



Donostia 2016-ren proiektu bat izan da:



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA



11

Zuzendaria:

Pablo Suberbiola

p.suberbiola@soziolinguistika.eus

Liderrak eredu

Liderrak eredu proiektua lan-munduan kokatzen da, eta zehatzago esateko, euskararen erabilera lan-munduan areagotzeko egiten diren saioen gaineko ezagutza zientifikoaren eta ikerketaren arloan. EraLan 4 moduan ere izendatu dugu proiektu hau, aurretik EraLan izeneko lan-ildoan eginiko lanen segida den neurrian.

Hizkuntza-erabilerari dagokionean "Liderren portaera eredugarriak" gaiaren lanketaren baitan, 2016. urteko lehen urratsa *Liderrak eredu eskuliburua* proiektuaren diseinua osatzea izan da. Diseinu hori ezin izan da gauzatu eta hurrengo urratsa izan da administrazio publikoaren eremuan gaiaren lanketa praktiko bat egiteko proposamena osatzea. Lan horren emaitza "Liderrak eredu lanketa alkate eta zinegotziekin" proiektuaren diseinua izan da, 2017an zehar garatuko dena.

Lankidetzak:



Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien
Metodologia Saila eta Hezkuntzako
Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak Saila

Babeslea:



12

Zuzendaria:

Olatz Altuna

o.altuna@soziolinguistika.eus

Hizkuntzen ahozko kale erabilera: herrietako neurketak

Kale Neurketa Metodologiaren bidez, kalean zenbat euskara erabiltzen den neurtzen dugu Soziolinguistika Klusterretik. 2016an honako herri hauetako kaleetan neurtu dugu ahozko erabilera: Azpeitia, Antzuola, Andoain, Gernika Lumo, Ordizia, Zarautz, Zumaia, Zaldibar, Usurbil, Oiartzun, Hernani, Errearteria, Hondarribia, Lezo, Erandio, Bermeo, Igorre, Astigarraga, Soraluze, Villabona, Legazpi, Aranguren, Ermua, Eibar, Zestoa, Arrasate, Urnieta, Anoeta, Eskoriatza, Aretxabaleta, Aramaio, Oñati, Zuia, Zigoitia, Urkabustaiz, Sakana eta Ondarroa.

Aurten, gainera, hizkuntzen kale erabilera aztertzeaz gain, hitanoaren kaleko presentzia ere aztergai izan dugu bi udalerritan: Azpeitia eta Usurbil. Esperientzia pilotu gisa definitu ditugu lehendabiziko hauek, izan ere, Kale Neurketa Metodologiari egokitzapen batzuk egin dizkiogu hitanoa darabilten elkarrizketak jaso ahal izateko. Beraz, metodologia egokitu hori baliogarria zaigun ziurtatu eta aurrera begira Hitanoaren presentziaren Kale Neurketek informazio aberasgarria eskaini dezakete euskararen erabileraren nolakotasuna jakiteko.

Informazio gehigarria [hemen](#).

13

Jendaurrean Erabili

Zuzendaria:

Eduardo Apodaka, EHU

Koordinatzailea:

Pablo Suberbiola

p.suberbiola@soziolinguistika.eus

Proiektu honen xedea da jendaurreko komunikazioan euskara gehiago, hobeto edo eraginkorrago erabili nahi duten erakunde eta eragileei laguntzeko eta jardun hura errazteko bide eta bitartekoak antolatzea. Horretarako ekimen desberdinak egin dira urtean zehar. Batetik, narrazio diagnostiko bat eratu da erakunde desberdinetako ordezkariak sakoneko elkarrizketak eginez. Erakundeen baitako komunikazio kudeaketa plana eta euskarazko komunikazio publikoaren gaineko haien iritzia eta esperientzia ezagutu da horrela. Bestetik, 2016an garatutako ikerketa-lanari eta Praktika Komunitatearen bilakaerari buruzko txostena osatzeari ekin zaio. Horrekin batera, urtean zehar bi Formakuntza Saio eman dira, bata "Komunikazio praktikak eta onargarritasun soziala" landuz, eta bestea "Komunikazio-praktiken berrikuntza erraztea: bide tradizionalak eta bide digitalak" arakatuz.

Irailean proiektuaren bigarren faseari hasiera eman zitzaion, Bilbon egin zen aurkezpen publiko batean proiektua gizarteratu eta erakunde berriei bertan parte hartzeko gonbita eginez. Azaroan fase berriari hasiera eman zitzaion eta ordu arte egondako 9 erakundeez gain berriak ziren beste hainbatek ere parte hartu zuten: Gasteizko Udala, EMUN, HUEZI, Mondragon Unibertsitatea, Donostiako Udala, Bai Euskarari Ziurtagiria, Kontseilua, CAF, MHI, Artez, Mutuaia, EUDEL eta LAB. Azkenik proiektuaren fase berri horretan ezinbestekoa izango den webgunea ere osatu da, erakundeen arteko komunikazioa eta elkar lankidetzak ahalbidetuko duen erreminta izango dena.

Informazio gehigarria:

<http://jendaurrean.eus/eu>



Babesleak:



Laguntzailea:



Lankidetzak:



UPV-EHUko Gizarte Psikologia eta
Portaera Zientzien Metodologia eta
Kazetaritza II saila

14

Zuzendaria:

Olatz Altuna

o.altuna@soziolinguistika.eus

San Mames: Kirol instalakuntza handietako neurketa

Kirol jarduera jendetsuek hiriaren transformazioa ekarri ohi dute eta hizkuntzaren erabileraren ikuspuntutik ere interesgarria da hirietako kirol instalakuntza handietan jokatzeko diren partidek hirian zer nolako inpaktua duten jakitea. Interes hori adierazi zion Bilboko Udalak Soziolinguistika Klusterrari eta ondorioz, 2016an Kale Neurketa Metodologia egokitu dugu San Mamesen neurketa bideratzeko. Proba pilotu gisa definitu dugu neurketa hau eta beraz, egindako egokitzapenekin emaitza adierazgarriak lortzen badira, antzeko beste interes eremuetara aplikagarria izango litzateke.

15

Soraluzeko haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana

Soziolinguistika Klusterraren eskutik, Aztiker Soziologia Ikerlariak Soraluzen haur, gazte eta gurasoen hizkuntza ohituren azterlana burutu zuen. Ikastetxearen eremuan burututako inkesta baliatuz ikasleen hizkuntza-gaitasuna, hainbat alorretako hizkuntza-erabilera, eta hizkuntza-jarrerei buruzko datuen analisia egin zen.

Lankidetzaz:**[a]**

a z t i k e r

16

Lankidetzak:

Zesar Martinez, EHUKo Parte Hartuz
Institutua

Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa

Proiektu honi 2015ean eman zitzaion hasiera. Orduan proiektua definitu zen eta hurrengo hiru urteetarako lanak zehaztu ziren. Proiektuaren helburu nagusia da Gipuzkoako herrietan euskararen inguruko aktibazioa eragiteko metodologia sortzea, horrela euskararen erabilerak gora egin dezan. Hala, 2016an proiektuaren lehen fasea landu da, alegia, aktibaziorako gakoak identifikatzea. Horretarako hainbat esperientzia arrakastatsu aztertu dira, euskalgintzakoak eta beste arlo batzuetakoak. Proiektuaren hurrengo fasea jorratuko da 2017an, hain zuzen ere esku-hartze pilotuak edo kontrolatuak.

Bazkide partaideak:

elhuyar



emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA



Babeslea:



Lankidetzak:



PROIEKTUAK

Ezagutzaren kudeaketa

Soziolinguistika Klusterraren egitekoen artean soziolinguistikari buruzko ezagutza zabaltzea dago. Horregatik, soziolinguistika arloko ezagutza gaur egun kudeatzen duten erakundeekin, ikerlariekin eta

adituekin elkarlanean jarduten dugu ezagutza-fluxu eta sare horiek ezagutzeko eta lantzeko.

Helburu horrekin honako bitarteko hauek erabiltzen ditu Soziolinguistika Klusterrak,

besteak beste: jardunaldiak, mintegiak, topaketak eta praktika komunitateak, argitalpenak, formazio saioak eta Interneteko tresnak, alegia, webgunea, sare sozialak eta Soziolinguistika Telebista.

1. **VIII. Soziolinguistika Jardunaldia**
2. **Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sarien IX. edizioa**
3. **"Hizkuntzen mundua eta euskara deskubrituz" material didaktikoa**
4. **Soziolinguistika albistaria**
5. **Azpimarra saioa**
6. **BAT aldizkaria**
7. **Internet: webgunea eta sare sozialak**
8. **Formazioak eta tailerrak**
 - IRALE programa
 - BERBEKIN programa
 - Praktika gogoetatsuaren gaineko formazioa Nafarroan
 - EHUko Uda Ikastaroetan tailerra
9. **Kongresuak eta hitzaldiak**
 - Bazkideentzako hitzaldia
 - Lurraldea eta Hizkuntza (LUHI) graduondokoa UEUn
10. **Artikuluak**
11. **Nazioarteko harremanak**
12. **Hausnarketa estrategikoa**

01

VIII. Soziolinguistika Jardunaldia

Ekainean egin zen VIII. Soziolinguistika Jardunaldiak *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011)* hartu zuen gaitzat. Jardunaldian Iñaki Martinez de Luna, Xabier Erize eta Mikel Zalbideren lanak eta lan horiei iruzkinak egin dizkieten adituenak aurkeztu ziren. Hizpide izan ziren *Euskararen transmisioa eta gaitasuna, Euskal herritarren portaera linguistikoaren motibo subjektiboen bilakaera*, eta, *Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera*.

- Hausnarketa hauek hiru mahai-ingurutan aurkeztu ziren:
- Euskararen transmisioa eta gaitasuna, eta aurrera begirako erronkak.
- Euskal herritarren portaera linguistikoaren motibo subjektiboen bilakaera (1991-2015) eta aurrera begirako bideak.
- Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak.



02

Koordinatzailea:

Belen Uranga

b.uranga@soziolinguistika.eus

Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sarien IX. edizioa

Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sarien IX. edizioa egin da aurtten. Aurtengo irabazleak ondokoak izan dira:

- Lehen saria, 1.500 € eta Jose Luis Zumetaren litografia bat
Mario Zapata, *Migratzaileen harrera, gutxiagotutako hizkuntzen testuinguruan*
- Bigarren saria, 1.000 €
Txerra Rodriguez, *Mihigintza ehuntzen Basaurin*
- Hirugarren saria, 700 €
Irati Liceaga, *Euskara, galiziera eta Irlandararen hiztun berrien hizkuntza-identitatea*

Sari-banaketa ekitaldia, 2017ko urtarrilean burutu da. Ekitaldian egile sarituek aukera izan dute euren lana aurkezteko publikoki. Gainera, bertan izan da BAT Aldizkariaren 102. zenbakia, non argitaratu diren lan irabazleak eta beste hainbat artikulu HAUSNARTU sarietara aurkeztutakoen artean aukeratutakoak.

www.soziolinguistika.eus/hausnartu
helbidean eskura daiteke proiektu
honetako informazio osagarria.



Babesleak:



03

“Hizkuntzen mundua eta euskara deskubrituz” material didaktikoa

Tribuaren Berbak telebista saioa oinarri dela sortu dira, Soziolinguistika Klusterraren aholkularitzarekin, ‘Hizkuntzen mundua eta euskara aurkituz sekuentzia didaktikoak Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioaren ekimenez. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteentzako, soziolinguistikaren arloa sakontzen da EIMA 2.0 gunean kokatu den materialean. Kike Amonarriz izan da proiektuaren zuzendaria, Iñaki Zapirain materialaren koordinatzailea eta SLK-ko kide Josune Zabala aholkularia.

Hiru ardatz nagusi hauek uztartzen dituen bidea proposatzen da materialetan: xede komunikatibo jakin bati erantzutea, soziolinguistika edukietan sakonduz eta talde lanean. Soziolinguistika gaitasuna ez ezik, komunikazio nahiz kooperaziorako konpetentziak ere lantzen dira. Helbide honetan dago materiala: <http://tribuarenberbak.weebly.com/>

SLK-k aholkularitza lanak egin ditu.

Partaideak:



04

Soziolinguistika albistaria

Koordinatzailea:

Imanol Larrea

i.larrea@soziolinguistika.eus

2016. urtean Soziolinguistika Klusterrak zaintza sistemaren garapenari ekin dio. Aurten, kanporako zaintza sistema definitu da eta hain zuzen ere, horretarako tresna nagusia da *Soziolinguistika albistaria*.

Hamabostean behin argitaratzen den albiste bilduma da honakoa eta soziolinguistikari buruzko azken albisteen, ikerketen, liburuen edota jardunaldien berri emango digu, besteak beste, egunean egoteko aukera eskainiz. E-mail bidezko bidalketekin zabaltzen bada ere, gure webgunean eskuragarri daude hamabostean behingo albistariak.

Informazio gehigarria:

<http://soziolinguistika.eus/albistaria>

SOZIOLINGUISTIKA
ALBISTARIA

Bazkide partaidea:



Babeslea:



05

Azpimarra saioa

Urtean zehar Soziolinguistika Klusterrak kolaborazioak egin ditu EITB1eko Azpimarra saioan, bai Klusterrak burutu dituen proiektuen inguruko aurkezpenak eginez, bai eta saiorako gaiak proposatuz ere.

Soziolinguistika Klusterrak lankidetzan jardun du EITB1eko [Azpimarra](#) saioarekin, 2015/2016 denboraldian. Helburua izan da hizkuntza eta bereziki euskara kontuetan, ikuspegi sozial batetik interesgarriak diren gaiak eta hizlariak eramatea, helburu pedagogiko eta informatibo batekin. Soziolinguistika Klusterraren helburuetako bat soziolinguistika ezagutza gizarteratzea da eta ikusi da bitarteko egokia dela horretarako Azpimarra saioa.

Ondokoak izan dira 2016ean elkarlanean egindako saioak:

- 2016-02-10, Gazteak eta euskara, Jone Miren Hernandez
- 2016-02-24, Hitzun berrien ikerketaren emaitzak, Estibalitz Amorrortu eta Ane Ortega
- 2016-03-09, Hausnartu sarien irabazlea: bere lanari buruz, Xabi Aizpurua
- 2016-04-13, Parekidetasuna eta euskara, Aizpea Otaegi
- 2016-04-27, Ahozotasuna, Josune Zabala

06

Koordinatzailea:

Belen Uranga

b.uranga@soziolinguistika.eus

BAT aldizkaria

BAT aldizkariak 2016. urtean lau argitalpen jarri ditu abian.

BAT 98 zenbakia: Euskaltzaletasunaren aktibazioa

- Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel: *Euskalgintza eta feminismoa: Identitateak berreraiki, demokrazia sendotu, boteretze kolektiboa bultzatu ea subalternitate eraldatzaile unibetsalak eraikitzeke proposamen bat.*
- Jasone Mendizabal: *Euskaltzaileen Topagunerako esperientzia arrakastatsuak: ikuspegi lokala eta nazionalaren osagarritasuna*
- Iñaki Martinez de Luna: *Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena).*



BAT 99 zenbakia: Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011) (I) Transmisioa, gaitasuna eta jarrerak



- Patxi Baztarrika: *Euskararen bilakaeraren argi-ilunen gurpilean: hazkundetik garapen iraunkorrera bidean.*
- Iñaki Martínez de Luna: *Euskararen transmisioa eta gaitasuna, eta aurrera begirako erronkak.*
- Patxi Juaristi: *Hizkuntzaren transmisioan eragiten ari diren faktoreen azterketa.*
- Xabier Erize: *Euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2015), eta aurrera begirako bideak*
- Jone Miren Hernandez: *Jarrera eta motibazio kontzeptuez haratago... Hizkuntza, kultura, praktikak (performancea) eta emozioak*
- Nekane Arratibel, Asier Irizar, Joxpi Irastortza: *Hizkuntza portaeren motibo subjektiboez hausnarketa: Hitória jurídica de la lengua vasca. 1789-2013. Instituto Vasco de Administración Pública, Oñati.*

BAT 100 zenbakia: Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011) (II). Erabilera



- Mikel Zalbide: *Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak*
- Olatz Altuna: "Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak" Mikel Zalbideren txostenari iruzkinak.
- Xabier Aierdi: *Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Mikel Zalbideren testuaren inguruko hausnarketa marjinalak*
- Lionel Joly: "Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak" Mikel Zalbideren txostenari iruzkinak.

BAT 101 zenbakia: Unibertsaltasunaren erantzukizun soziala euskararekiko



- Iñaki Marko: "Aktibo!eus" proiektua: euskara hitzun aktiboak unibertsitatearen erronka gisa
- Eduardo Apodaka: "Habitua-a" edo hizkuntzaren ezkutuko curriculum unibertsitatean
- Iñaki Martínez de Luna: *Akademia, Hizkuntza-Politika eta Diskurtsoak*
- Gwerfyl Roberts: *Language appropriate practice in health and social care. /Hizkuntzen inguruko jardunbide egokiak osasungintza eta gizarte zerbitzuetan*
- Aitor Montes: *Hizkuntza kontzientzia osasungintzan. Unibertsitatearen eta Osakidetzaren ekarpena zein elkarlana kultura-aldaketa prozesuan*

2016eko berrikuntzei dagokienez, ondoko ekimena aipatu daiteke: UPV/EHU-ko Letren Fakultatea Ikastegiarekin egin den Hezkuntza Lankidetzarako programa bat garatzeko hitzarmena. Hitzarmen honi esker, 2016an UPV/EHU-ko lau ikasle parte hartu dute praktikari gisa BAT aldizkarian.

Babesleak:



07

Internet: webgunea eta sare sozialak

Klusteraren misioan bertan ageri da soziolinguistika-ezagutza zabaltzeko egin beharra, eta gaur gaurkoz gure webgunea da soziolinguistikaren inguruko informazioa hedatzeko daukagun tresnarik eraginkorrenetakoa, atsegina eta erabiltzeko errazagoa izan dadin.

<http://www.soziolinguistika.eus>

<http://www.facebook.com/slklusterra>

<http://twitter.com/slklusterra>

<https://vimeo.com/channels/soziolinguistikatb/videos>

<http://issuu.com/slkluster/docs>

08

Formazioak eta tailerrak

Zuzendaria:

Josune Zabala

Koordinatzailea:

Olatz Bengoetxea

o.bengoetxea@soziolinguistika.eus

2016an zehar emandako hainbat formazio saiotan ahozkoaren gaia landu da ikuspegi soziolinguistikotik. Saio horiek bi bidetatik eskaini dira: IRALE programaren bitartez eta IRALE programatik kanpo.

IRALE programa

IRALE programan 3 formazio mota eskaini ditu Soziolinguistika Klusterrak: H409A eta H409B kodedun ikastaroak (Ahozko hizkuntzaren lanketa hizkuntza normalizazioaren aldetik) eta H409I kodedun ikastaroa (Ahozkotasuna irakasteko metodologia eta baliabideak).

IRALE programaren bitartez ez ezik, SLK-k hainbat formazio edo hitzaldi eman ditu, zuzenean lotura dutenak gaiaren gainean ikertzen ari garenarekin (eta IRALE bitartez ematen dugun formazioarekin).

SLK-k bideratutako prestakuntza eta emandako hitzaldiek gora egin dute nabarmen azken urteetan. Hala, 2013.urtean 5 formazio-saio eskaini ziren, eta 2016an, aldiz, 38 saio eman dira.

Babeslea:



Zuzendaria:

Ines Garcia (UPV-EHU)

Koordinatzaileak:

Josune Zabala eta Olatz Bengoetxea

j.zabala@soziolinguistika.eus

o.bengoetxea@soziolinguistika.eus

BERBEKIN programa

Bergaran bideratzen ari garen BERBEKIN programaren harira formazio saioak eman dira ikastetxeetan (Mariaren Lagundia ikastola; Ipintza Institutua; Aranzadi ikastola) ahozko hizkuntzaren esku hartzearen gainean. Irakasleek aukera izan dute ikastetxe bakoitzean grabatutako saioak ikusi eta aztertzeko. Geletako elkarrekintzak aztertu dira guztion artean eta ahozko hizkuntzaren erabileran laguntzen duten praktika onak zein diren jaso ahal izan da.

Laguntzaileak:



Koordinatzailea:

Josune Zabala

j.zabala@soziolinguistika.eus

Praktika gogoetatsuaren gaineko formazioa Nafarroan

Nafarroako Gobernuak Euskara Atalak Soziolinguistika Klusterrari 2015ean egindako proposamen baten ondorioa izan da "Praktika gogoetatsua" formazioa. Irakasleak hizkuntzaren erregulazioaren gainean dituen egiteko moduetan gogoetatzen lagunduko zukeen formazioa osatu dugu bide honetan jakintza eta eskarmentu handiagoa duen HUHEZIko (Mondragon Unibertsitatea) bazkideekin batera. HUHEZIko adituak aritu dira aholkulari eta prestakuntza lanetan, eta SLK-ko kideak koordinazio eta prestakuntza lanetan. Iruñeako Amaiur Ikastolan eta Altsasuko Institutuan eman dira formazio hauek.

Lankidetzak:



Zuzendaria:
Josune Zabala

Koordinatzailea:
Olatz Bengoetxea
o.bengoetxea@soziolinguistika.eus

EHUko Uda Ikastaroetan tailerra

"Zer egin ahozko komunikazioa lantzeko" lantegia antolatu du Soziolinguistika Klusterrak EHUko XXXV Uda Ikastaroen baitan, Miramar Jauregian. Proposamenak izan duen eskaera kopuru handiagatik bi tailer eman dira uztailean.

Bereziki praktikan oinarritu da tailerra: gogoetatu da gai honen gaineko oinarri soziolinguistiko eta pedagogikoez, esperientzia ezberdinen berri izan da, eta ahozko komunikazioa lantzeko jarduerak esperimentatu eta sortu dira.



09

Kongresuak eta hitzaldiak

- Altuna, Olatz (2016ko otsaila) Hizlaria: "Euskararen ahozko erabilera: erronkak". *Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak*, Euskaltzaindia. Bilbo.

- Hernandez Jone Miren eta Suberbiola, Pablo (2016ko apirila), "D ereduko kirola ikerketa ekintza proiektua", *Kirola D ereduan, noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?*, Udaltop, Lasarte-Oria.

- Garcia, Ines eta Zabala, Josune (2016ko urtarrila) Hizlariak: "Ahozkotasuna:

aisialdian eta lan munduan euskararen erabilera bultzatzeko ekarpenak hezkuntzatik". Donostia.

- Zabala, Josune (2016ko ekaina) Hizlaria: "DBHko ikasleen ahozko gaitasun komunikatiboa. Tolosako laborategiaren ikerketa-markoa". *Doktoregaien ikerketa jardunaldia/Journée d'étude des doctorants*, IKER UMR 5478; UBM; UPPA; UPV-EHU. Baiona.

- Zabala, Josune eta Bengoetxea, Olatz (2016ko uztaila) Hizlari eta dinamizatzaileak: "Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko?", XXV. Uda ikastaroak, EHU. Donostia.

- Zabala, Josune (2016ko uztaila) Hizlari eta dinamizatzailea. "Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktikarako aukera berriak birpentsatzen". *Euskararen biziberritzea eskolan*, UEUko jardunaldiak. Eibar.

- Zabala, Josune (2016ko urtarrila) Hizlaria. "Ahozkotasuna: aisialdian eta lan munduan euskararen erabilera bultzatzeko ekarpenak hezkuntzatik", Soziolinguistika Klusterreko Bazkideei hitzaldia, San Telmo Museoa, Donostia.

Horiez gain, udazkenean soziolinguistikari buruzko modulua landu da UEUk antolatu duen Lurraldea eta Hizkuntza (LUHI) izeneko graduondokoa.

Zuzendaria:

Ines Garcia Azkoaga (UPV-EHU)

Koordinatzailea:

Josune Zabala

j.zabala@soziolinguistika.eus

Bazkideentzako hitzaldia

BERBEKIN programaren harira Soziolinguistika Klusterrean jasotzen ari garen emaitzak aisialdian eta lan mundura eramateko ahalegin bat eginez aurkeztu da bazkideentzako "Ahozkotasuna: aisialdian eta lan munduan euskararen erabilera bultzatzeko ekarpenak hezkuntzatik" hitzaldia, Donostiako San Telmo Museoa. Programaren zuzendari Ines Garcia-Azkoagak eta koordinatzaile Josune Zabalak egin dute ahozko erabilera lan mundura eta aisialdian eramateko lan-tresna berrien aurkezpena.

Lurraldea eta Hizkuntza (LUHI) graduondokoa UEUn

Udazkenean soziolinguistikari buruzko modulua landu da UEUk antolatu duen Lurraldea eta Hizkuntza izeneko graduondokoa.

10

Artikuluak

- Zabala, J. (2016) "Ahozko hizkuntza irakastea", bi atalen garapena: *Ebaluazioa testu motaren arabera*, eta, *Lehen Hezkuntza*. Nafarroako Gobernua, Euskara Atala eta EIBZ.2

- Zabala, J. (argitaratzeke) "Euskararen normalizazioa eta eskola: eztabaidarako puntu batzuk". Deustuko Euskal Gaien Institutuak eta UEUk elkarlanean argitaratua izenburu honekin: *Euskararen Biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*.

11

Nazioarteko harremanak

Atal honetan oso proiektu garrantzitsua izan zen Hitzargiak. Horrez gain, beste hainbat ekimen ere egin dira beste herrialde batzuetako harremanak lantzeko:

- NPLD (Network to Promote Linguistic Diversity): Europako sare honen bilkuretan parte hartu dugu bazkide gisa.

Informazio gehigarria: <http://www.npld.eu/>

- Horizon2020, Europako Batzordea: diru-laguntza horretako deialdi baterako proiektua prestatzen jardun dugu Europako beste hiltun komunitate batzuetako eragileekin batera. Proiektuaren helburua da Europako kostaldeetako hainbat komunitate gutxiagotueterako plangintza marko berria sortzea hizkuntzen inguruko elementuak kontuan hartuta, besteak beste.

- Suberbiola, P. (2016ko ekaina), "Principal results of Arrue Project 2011 and 2013", *Soillse Conference, Small Language Planning: Communities in crisis*, Glasgow (Eskozia).

- Larrea, I. (2016ko ekaina), "How could we measure street presence of a language with a mobile phone", *Soillse Conference, Small Language Planning: Communities in crisis*, Glasgow (Eskozia).

- Kataluniako Xarxa CRUSCAT sareak antolatutako III Jornades "La recerca sociolingüística en l'àmbit de la llengua catalana" jardunaldian Soziolinguistika Klusterra aurkeztu genuen eta erakunde harekin genuen hitzarmena berri egin genuen.

Bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=GAZEab7bKXc> (19:20 minututik aurrera)

- Eskoziatik gaelikoaren ikerketan diharduen Inge Birnie ikerlaria etorri zen SLKra bisitan urrian erabileraren kale neurketak egiteko metodologia hurbilagotik ezagutzera.



12

Hausnarketa estrategikoa

Otsailean hasita hurrengo lau urteetarako hausnarketa estrategikoa gauzatu genuen. Horren emaitza da Soziolinguistika Klusterraren 2016-2019 plan estrategikoa. Prozesu horretan partaide izan ziren Klusterreko bulegoa, Zuzendaritza, bazkideak eta bestelako eragileak (batez ere ikerketakoak eta administrazio publikoetakoak).

**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**



**Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain
T. 943 592 556 / 629 350 095**

**Luzarra Kalea, 10
48014 Bilbo**

✉ **kluster@soziolinguistika.eus**

📍 **www.soziolinguistika.eus**

📌 **slklusterra**

🐦 **@slklusterra**